# EL JUZGADO MUNICIPAL



D. Roque Ortolá, Juez municipal



D. José Esnal, Secretario del Juzgado

NO *sonaba jamás con semejante cargo, pero ya que para él he sido nombrado, he de procurar, dentro de la Ley y la Justicia, salir de esta honrosa distinción lo más airroso posible».* Estas fueron las palabras que D. Roque Ortolá, hoy Juez municipal, nos dijo a raiz de su nombramiento.

Los hechos vienen demostrando que cumple fielmente su promesa.

El Directorio Militar, cuando hizo la renovación de Jueces, tuvo gran acierto al designar para Renteria a D. Roque Ortolá, persona honradísima, activo y laborioso, empleado de la fábrica que La Papelera Española posee en esta villa.

En el desempeño de su difícil cargo ha puesto el señor Ortolá toda su buena voluntad, trabajando en la Balanza de la Diosa Themis; bien es cierto que en esta labor tiene la asidua colaboración del diligente Secretario D. José León Esnal.

Y como los hechos son más demostrativos que las palabras, detallamos la labor realizada en el primer semestre del año presente.

Nacimientos, 108; Matrimonios, 20; Defunciones, 46; Nacidos muertos, 11; Actos de conciliación, 19; Juicios verbales, 36; Desahucios, 22, y Juicios de faltas, 5.

Esta ha sido la labor realizada por estos dos dignos funcionarios a quienes la Revista RENTERÍA rinde un homenaje por su celo y trabajo.

# OROIGAIAK

## ERRENDERIKO NERE LAGUN ZARREI

BETI begien aurrean zaituztet. Umeak giñala, ezagueraren argia gure buruntxoetan piztu baño len, ezagutu giñan: gero erriko eskolan, adixkidetasunaren lokarriak estutu ginduan, eta guzion biotz txikiez, biotz aundi bat egin zuan: ainbesteraño maitetasunakestutu ginduan.

Alaz ere, guziok biotz bakarra izan-arren, noizean-beinka burrukak eta mutur-jokak izan oi-genituan gure artean ere; baña gure negarrak eta asarreak, udako ekaitzaren antzekoak izan oi-ziran: goibeldu, euri-jasa ta eguzki gartsua. Zorioneko aurtzaroa, zinez! Noletan Aztitxo'n igeritan igarorako arratsalde eder aietaz aztu? Amaika bider uretik otzez dardaizka aterata, larrugorrian inguruko zelaiean jauzka (saltoka), mendian bildotsak bezela, ibilliak gera!; etxetik *ekarritako* gure ogi kozkorra bertan alkandora-utsik, janondoren amaika arto-bizar erre degu, agureak su-ondoan bere pipa ketu oi-duan baño pozago!; baita amaika korapillo oraindik igeri zebiltzanen al*k*andora eta galtzerdietan egin ere!! Oh tempora, oh mores!...

Dotriñatik aterata, gure igande-arratsadeetako apuzturak! Kateraño zein lenago joan; Aztigarraga'ko bentetatik-barrena zein lenago etorri. Orduko gure sasoia, lagun zarrak! Baserritarrak eta kaletarrak, beartsuen eta aberatsen umeak, azkarrak eta kirten-xamarrak, danok bat giñan, danok aizkideak, danok lagunak, zoriontsu danok. Arga*tik* ezin aztu zaituztet, arga*tik* beti nere begien aurrean zaituztet.

Geroztik amabost urte aundi geiago ba-daramazkigu lepazamarrean: aldaketa gogorrak ikusiak gera artean. Gu gizon egin giñan... baña oraindik ere gure aurtzaroko egun zoragarrien oroi-miñaz gaude. Gurekin jolasean ibillitako lagun eta aizkide bat-edo-beste eriotzaren atzaparrak eraman ditu: aietaz ere ezin aztu naiz; nere otoitzetan ari naizenean, begien aurrean ditut beti. Gu ere ba-guaz...

Egunak eta urteak eskuetatik igesi dijoazkigu: bizitzaren ibaiko ugaitzak, laister*ka* garama, ibai-ertzeko lar eta belarrei eutsitzeko betarik ere ematen ez digula...

Aldendu giñan: zuek, geienak beintzat, erriko edo baserrietako lantegietara, ni berriz, Jaungoikoak ala naita, urrutira, atzerrira. Artzai Onaren txistu-otsa txiki-txikitandik entzun nuan eta nik ere artzai izan nai nuala-ta, artzaingoa ikasten amabi urteren buruan ekin nuan, dakizutenez. Artzai jatorra naiz orain, nere soñean artzaisoñekoa, eta makilla nere eskuan jarri zizkidaten-ezkeroztik. Lareun ta berrogei ardi ta arditxo ba-ditt nere mendean; artalde aundixkoa artzai batentzat, noski. Ardi oiek guziak zaintzen, gaxo daudenak sendatzen, bide okerrera jotzen dutenak zuzentzen eta guzientzat jan sendoa billatzen lanik naiko sortzen zaio artzaiari, zinez; baña lan gozoak zaizkio beti lan orixek artzaiari: bereak bai ditu ardiak, bere oiek benetan maite bai ditu.

Miranda'tik Rioja-aldera iñoiz ba-zatozte, ez, arren, aurrera jo, nere erritxo onetara igo gabetanik, ardo-ezik, beintzat, ez dezute izango, ta gosea asetzeko ainbat ere arkituko dezute, Jaunari eskerrak. Etorri, bada, nai dezutenean. Pozaren pozaz zuen bostekoa estutuko det eta laztanduko zaituztet. Ta bitartean eta beti, aurrera, nere lagun zar oiek. Egizko jakin-gaietan jakintsu egin zaitezte, jaio giñan erria edertzen eta aundiagotzen ekin zazute: baña gure aurtzaroko oitura onik utzi gabe, gure euzkera maite-maitea baztertu gabe. Guri gure guraso onak itz-egiten erakutsi ziguten bezela, zeren semeei erakutsi zuek ere, ta gure tarterik ez du orduan igesik egingo. Orrela egiz aurrera joko degu beti, orrela benetan gure Errenteri maitea maite*ko* degu.

JAUREGI'TAR LUIS, APAIZA.

Buradon'go Gatzaga'an, 1924'*gk*o. Orrillan.

## CONVENTO DE LA SANTÍSIMA TRINIDAD DE MADRES AGUSTINAS

ENCLAVADO en uno de los sitios más pintorescos de la villa, existe desde el siglo XVI.

¿En quién no despierta su nombre agradables recuerdos infantiles?

Aquel cortejo de mendigos dirigiéndose para ser socorridos al mediodía según antigua costumbre, las bellezas de sus solemnes fiestas religiosas los días del Santo fundador de la orden y de las solemnes *entráticas.* Los bellos recitados de letanías y oraciones escuchadas en la semi obscura y sombría soledad de su capilla, perturbada por nuestra inquieta curiosidad de oir y ver por entre las tupidas rejas del coro. Las diarias flores de Mayo y la vuelta al pueblo..!!

La clásica "champarra" que en nuestra niñez sonaba a gloria por ser la hora de dejar la *bolsa* de la escuela, y... más tarde, en nuestra juventud y madurez, por la misma discreta y agradable forma, nos avisaba la cercana hora de realizar nuestras cotidadas tareas...

Son impresiones que ya no las recibe nuestro espíritu. Diversas transformaciones, naturales unas, sociales otras, han variado nuestro ánimo y va relegando al desagradecido olvido sus bellos y agradables recuerdos.

